

## EBAPEN: Energia berriztagarriekin autokontsumo partekatua Eibarren



EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko atalean

## **PARTAIDEAK**


**Ikasleak:** 3 ikasle. Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Graduko ikasleak .

**AZP:** GIE, Eibarko ataleko AZPko koorditzailea.

**Irakasleak:** 3 irakasle. Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Graduko irakasleak . Ingeniaritza Elektrikoko Saila.

## HELBURUA

Energia berriztagarrien erabilera sustatu, zehazki energia fotovoltaikoa eta aldi berean Erakunde publikoko eraikinen arteko autokontsumo partekatua sustatzea da.



## NOLA?

Eskolan eta eskola kokatuta dagoen hezkuntza esparruan kontsumitzen den energia elektrikoaren azterketa egin eta kontsumo horri erantzuna emateko instalazio fotovoltaikoak diseinatu eta erakunde publikoko eraikinen arteko autokontsumo partekatua aztertu.

## BURUTUTAKO EKINTZAK


### - DATUEN AZTERKETA:

- Energia elektriko kontsumo datuak aztertu. Iberdrolatik lortutako kontsumo datuak eta sare aztertzaileak eskaintzen dituen datuak.
- EVEk duen instalazio fotovoltaikoen datu azterketa.

### - ESKOLAKO ERAIKINEAN INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BATEN DISEINUA.

- Instalazioaren diseinua aurrera eramateko beharrezkoak izan diren datu bilketa (eguzki irradiazioa , itzalak, etab.)

**PV syst**




## BURUTUTAKO EKINTZAK

- HEZKUNTZA ESPARRUKO ERAIKIN EGOKIENEAN INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAREN DISEI

Kontsumoa zehaztu.

Eraikinen dimentsioak aztertu, sor daitezken itzalak aztertu eta PVsyst programaren laguntzaz eskariari aurre egiteko instalazio fotovoltaikoa diseinatu.



- AURREKO INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOETAN OINARRITUZ AUTOKONTSUMO FOTOVOLTAIKO PARTEKATUAREN ANALISIA EGIN ESKOLAKO ETA HEZKUNTZA ESPARRUKO ERAIKINEN ARTEAN.

## **ONDORIOAK**

Proiektuan parte hartzen duten kideek iraunkortasun-irizpideekin bat datozen soluzio teknikoak diseinatzearen garrantziaz jabetzea eta, are gehiago, garapen iraunkorrarekin bat datozen arloan etorkizuneko erronkei erantzuteko irtenbide sortzaileak proposatzeko trebetasunak hartzea da.

Kolektibo ezberdinen artean egungo arazo erreal batean lan egingo da eta arazo erreal horri erantzuna emateko lan egingo da.

### **Gradu amaierako lanean**

Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Graduako ikasleak lan-talde kooperatibo batean Ikerketa praktikan jarriko dute, trebetasun profesionalak garatuko dituzte eta iraunkortasunean aurrera egiten lagunduko dute.

Proiektuko partaide diren ikasleen GrALen aurkezpenean proiektuaren emaitzak aurkeztuz, unibertsitateko kideek iraunkortasunaren arloan duten gaikuntzan ekarpena egingo da.

## EBAPEN: Energia berriztagarriekin autokontsumo partekatua Eibarren



EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko atalean